



LEGORRETAKO HIRI ANTOLAKETAKO PLAN OROKORRAREN INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMEN DOKUMENTUA

21/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoaren, 6. artikuluan eta 10/2021 Legearen, abendua 9koaren, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoaren, 72. artikuluan eta II.A) eranskinean xedatutakoari jarraituz, nahitaez egin behar da hiri antolamenduko plan orokorren –HAPO, aurrerantzean–, ingurumen ebaluazio estrategiko arrunteko ohiko prozedura.

Legorretako Udalak udalerriko HAPOa egiteko eta izapidetzeko prozesua hasi du; hortaz, 21/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, 18. artikuluari jarraituz, 2023ko otsailaren 20an Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuari eskatu zion has zezan planaren ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta. Horretarako, Udalak HAPOaren aurrerakinaren memoria, planaren hasierako dokumentu estrategikoa eta aintzat hartutako aukerak biltzen zituen dokumentazio kartografikoa bidali zituen.

Horri dagokionez, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 19. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak, 10. artikuluan xedatutakoaren arabera, planak eta programak prestatzerakoan ingurumen alderdiak bateratze aldera, ingurumen organoak irismen agiri bat egin behar du ingurumen azterketa estrategikoa izan behar duen hedadura, xehetasun eta zehaztapen maila finkatzeko. Aldez aurretik, dena den, kontsulta egingo zaie ukitutako administrazioei eta pertsona interesdunei.

Horrenbestez, 10/2021 Legearen, abendua 9koaren, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoaren, 62.2. artikuluari jarraituz, eta 16/2020 Foru Dekretuan, urriaren 20koan, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoan, xedatutakoarekin bat, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak dokumentu hau igorri du, Legorretako Hiri Antolaketako Plan Orokorraren irismen dokumentua, hau da, 211/2012 Dekretuaren, urriaren 16koaren, 10. artikuluan jasotako erreferentziarako dokumentua.

1.- LEGORRETAKO HAPO-AREN PROPOSAMEN NAGUSIAK

Legorretako Udalak ingurumen ebaluazio estrategikoko prozedura hasteko bidalitako dokumentazioan HAPOaren aurrerakinaren memoria, dokumentu kartografikoa eta hasierako dokumentu estrategikoa daude, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak, eskatzen dituenak. Halaber, ingurumen ebaluazio estrategikoaren eskabidea ere bidali zuen (211/2012 Dekretuaren, urriaren 16koaren, V. eranskina).

Aurrerakinak eta haren hasierako dokumentu estrategikoak hainbat aukera ezarri zituzten antolamenduaren xede diren sektore eremuetarako, eta horietako guztietan jaso zen esku ez hartzeko aukera («0 aukera» edo egungo antolamendua mantentzea).

Hiri ereduari eta lurzorua okupatzeko strategiari dagokionez, bi aukera planteatzen ditu: Arau Subsidiarioetan jasotako antolamendua mantentzea (0 aukera), hainbat eremutan bizitoki lurzorua –hirigunea, Elizondo, Zubiaurre, Bidarte, Ergoiena eta Berostegi–, Egian industria lurzorua, eta Kaltzada Azpin espazio libretarako lurzorua antolatze ereduarekin; eta 1. aukera, eredu trinkoagoa, epizentroa udalerraren erdigunean duena, eta egun urbanizatuta edo narriatuta ez dagoen ezain lurren hirigintzako eraldaketarik proposatzen ez duena. 1. aukerak



baztertu egiten du 3.1.1. *Egia* sektore urbanizagarriaren hirigintzako garapena, bertan baitaude udal mugarte osoko balio agrologiko handieneko lurrak, lurzoru urbanizaezinean jasotzen direnak. Halaber, egun 5.2.10 *Oriar*, 4.2.1 *Ermesagasti*, 5.3.3 *Araztegia*, eta N1 errepidearen iparraldean kokatutako espazio libreen sistema orokorra lurzoru urbanizaezintzat sailkatuko dira.

Lurzoru urbanizaezinaren antolamenduari dagokionez, aurrerakinak hiru zonakatzeko aukera posible jasotzen ditu: egungo zonakatzeko mantentzea (0 aukera); Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSaren zonakatzeko proposamena zuzenean aplikatzea (1. aukera), aldaketarik egin gabe; eta LPSaren zonakatzeko egokitzea, zonakatzeko zehaztuagoaren ondorioz lurzoru batzuk birdefinituta (2. aukera). 2. aukera horretan bertako zenbait baso, Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatak eta antzeko lurzoru batzuk daude, babes kategorian berezian; kutsatuta egon daitezkeelako inbentariatutako lurzoruak eta baso narriatuak, ingurumena hobetzeko kategorian; eta handitu egin da nekazaritzako balio estrategiko handikotzat jotako lurzoruaren azalera, azken hamarkadetakoa baratze jardunaren atzerakada gelditzeko. Halaber, 2. aukerak, baldintzatzaile gainjarri gisa jasotzen ditu arrisku naturalei eta klima aldaketari buruzkoak, azpiegitura berdea eta interes naturaleko espazioak, baita sektoreko bestelako araudietatik eratorritakoak ere.

2. aukera horri jarraituz, lurzoru urbanizaezinaren antolamendua lurraldean sakabanatutako balio handieneko bertako basoen arteko, Murumendi natura intereseko espazioaren eta Araxes ibaiaren haranaren arteko eta aipatutako guneen eta Oria Garaia KBEaren arteko tokiko korridore sare batek osatuko luke, batez ere goiko guneeetatik jaisten diren errekek baliatuz. Murumendi natura intereseko espazioan kokatutako baso landaketak –aurrerakinak espazio babestearekin bateraezintzat jotzen ditu– ingurumena hobetzeko jotzen joko lirateke. Azkenik, aukera horrek proposatzen du lurzoru erreserbak sortzea, konektagarritasun ekologikoko helburuak edo natura intereseko gunek babestekoak betetzeko beharrezko lurzoruak lortu ahal izateko.

Mugikortasunaren antolamenduari dagokionez, 0 aukeraz gain, aurrerakinak aukeratzat jotzen du mugikortasun eredu jasangarriagoaren alde apustu egitea (1. aukera) Donostia-Beasain bidegorria osatuz udalerrian –erdiko zatia egitea falta da, hirikoena, 540 m–, industria jardueretako gunek eta kanpoko bizitoki gunek konektatuz (bai Berostegi bai Ergoiena). Halaber, proposatu da disuasio aparkaleku bat sortzea Errepide Nazionala kalean, foru errepidearen parean, eta bertan birkokatzea bidegorria egikaritzean galdutako aparkaleku plazak. 2. aukera datza 1. aukerako jarduketak udalerraren inguruko «ibilbide osasungarri»en sare batekin osatzean, oinez ibiltzea sustatzeko. Horregatik, proposatu da bide batzuk oinezkoentzat egokitzea, ibilgailu motordunen aurka, eta jarduketa sorta bat egitea oinezkoen irisgarritasuna hobetzeko trenaren ardatzean.

Espazio libreen antolamenduaren aukerei dagokienez, 1. aukeran egungo hirigintzako antolamenduan jasotako espazio libre guztiak (N1 errepidearen hegoaldean kokatutako parkea izan ezik) eta *Kaltzada Azpi* eremua (egun hiri baratzeetarako eta bizikleta parke baterako erabiltzen da) espazio libreen sistema orokorrean txertatuko ditu. Gainera, *Iztator* eta *Ergoien* eremuen garapenetako lagapenei esker lortutako espazio libreak ere sartuko dira bertan. 2. aukera datza 1. aukera espazio libreen proposamen gehiagorekin osatzean, sare banatu eta heterogeneoagoa lortzeko erabilerei eta ezaugarriei dagokienez, hiri kanpoko parke gehiagorekin.

Zuzkidura ekipamenduei dagokion antolamenduko 1. aukeran jaso da 4.3.2. *Kaltzada Azpi* eremurako aurreikusitako gune bat kentzea, aurreko apartatuan aipatutako espazio librea posible egiteko, aparkaleku ekipamendu bat txertatzea udalerraren erdiguneko aparkalekuaren gainean (aparkalekua lurperatuz), eta autokarabanentzako zerbitzu eta aparkaleku gune bat



jartzea egungo 4.3.3. *Geltokia* eremuan. 2. aukerak 1. aukeran jasotakoa ezartzen du, eta eraikin bat gehitzen Kale Nagusiko 7 zenbakian, zuzkidura ostatu gisa.

Jarduera ekonomikoak antolatzeko aukerei dagokienez, 1. eta 2. aukerek aurreikusten dute egungo Arau Subsidiarioek jarduera ekonomikoak ezartzera bideratutako eremuak desklasifikatzea, iritzi baitzaio bigarren sektoreko jarduera ekonomikoetarako lurzoru beharrak aseta daudela indarreko plangintzan jasotako eta dagoeneko garatutako eremuen azalerarekin. Zehazki, 1. aukerak Egia sektore urbanizagarria desklasifikatzen du, eta 2. aukerak, horrez gainera, proposamenak egiten ditu lehen sektorea –elikagaien lehen eraldaketarako partzela bat ezartzea aztertzen du– eta hirugarren sektorea –*coworking* moduko lantoki bat kokatuta, ekintzaileek beren online zerbitzuetako negozioa edo antzekoa kokatzeko lokala behar dutenen edo beren etxeetan nahiko leku eduki ez eta telelana egin nahi dutenentzat– sustatzeko.

Bizitokiak antolatzeko aukeretan, indarreko Arau Subsidiarioek oraindik egikaritu gabeko 174 etxebizitzako eskaintza jasotzen dute, dentsitate txikiko hiri garapen modukoak batzuk. 1. aukeraren apustua da eremu batzuetako dentsitatea handitzea, eta lortu nahi den hiri eredu trinkotik aldentzen diren bizitoki jarduketetan hiri lurzoria desklasifikatzea (Berostegi eta Oriar), baita uholde arriskuagatik edo jabeek adierazitako interes faltagatik egikaritzen zaila diren jarduketetan ere (Zubizahar, Guadalupe, Bitart eta Betesagasti). Dentsitatea handitzeko eta etxebizitza kopuru nahikoa lortzeko, bost aukera ezartzen ditu, azpiaukera gisa.

- 1-A. aukera datza 3.2.1. *Ergoiena* eremuaren dentsitatea handitzean. Eremuaren mendebaldeko zatia dentsitate txikiarekin urbanizatu da, baina ekialdekoa oraindik garatzeke dago. Hortaz, proposatu da antolamendua eta azken zati horren eraikuntza profila aldatzea, etxebizitza kopurua handitzea eta askotariko 72 etxebizitzako eskaintza sortzea: etxebizitza atxikiak, etxebizitza kolektiboak, terraza edo partzela txikidun beheko solairuko etxeak, teilatupeak, pisuak, bai libreak bai babestuak.
- 1-B. aukera 5.2.1. *Kale Nagusia* eremuan zuzkidura jarduketa bat txertatzean datza, udaletxearen atzean kokatutako aparkaleku gunean, bi helbururekin: batetik, gainazaleko aparkalekua lurperatzea eta handitzea, eta, bestetik, bizitoki eskaintza publiko eta babestua sortzea, profil hau duten 14 etxebizitzakoa, gutxi gorabehera: 2SS+BS+1S+EP.
- 1-C. aukerak proposatzen du jarduketa integratu bat txertatzea 4.3.2. *Kaltzada Azpi* eremuan, egun bizikleta parkeak (*pump track*) hartzen duen gunean. Ibaiaren ondoko gunea da, uholdeen eragin gunetik kanpoko, 5.1.2. *San Miguel* industria eremuaren eta egungo hiri baratzeen artekoa. Antolamendu berrian lurzoru publikoan bi eraikuntza partzela egongo liriteke, gutxi gorabehera 28 etxebizitzako bizitoki eskaintza sortzeko, eraikuntza profil honekin: 1SS+BS+2S+EP.
- 1-D. aukera. Laugarren aukera gisa proposatu da 5.1.1. *Iztator* eremua aldatzea, egun aldaketa puntuala egiten ari zaiona. Asmoa da hiri berritzeko eragiketa bat txertatzea eremuaren iparraldean, gaur egun bizitoki eraikin bat dagoen lekuan, eta beste bi alboko eremuan, 5.2.9 *Alderdi* izenekoan, guztiak pabiloi artean. Horrela, bizitoki gune berri bat finkatuko litzateke bi industria eremuen artean, zubiaren aurrean, 3.2.1. *Ergoiena* eremuarekin hurbiletik lotua. Horren ondorioz, baserriak eta egun nekazaritzako erabilerak dituzten lurzoruk, lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta daudenak Alderdi Eder bizitoki eremuan, berriz desklasifikatu ahalko dira, lurzoru urbanizaezin izatera itzultzeko. Antolamendu berrian hiru partzela egongo liriteke: bi, bizitokikoak; eta hirugarrena, zuzkidurakoa, zeinarekin gutxi gorabehera 32 etxebizitza libre eskainiko liritekeen.



Azkenik, zerbitzu azpiegituren antolamendu aukerei dagokienez, zerbitzuko azpiegituren antolamendu aukerei dagokienez, 0 aukeraz gain, aurrerakinak 1. aukera gisa jasotzen du ekintza multzo bat, tartean dituen, besteak beste, saneamendu sistema udalerriko goiko gunetara zabaltzea, tokiko komunitate energetiko bat sortzea eta komunikazio sistema hobetzea.

Aurreko aukeren osagarri, aurrerakin dokumentuak proposatzen du hobekuntzak egitea, batetik Bidarte eta Guadalupe auzoetan, eta, bestetik, Etxezarreta auzoan.

Aurrerakinak ez dio beren-beregi Udalak zein aukera garatu nahi dituen lehentasunez, baina horien balioespenetik eta hasierako azterlan estrategikoan egindako hasierako ingurumen ebaluazioaren ondorioetatik uler daiteke, printzipioz, sustatzaileak honako hauek hobesten dituela: hiri ereduaren eta lurzoru okupatzeko strategiaren 1. aukera, lurzoru urbanizaezinaren antolamendu proposamenetako 2. aukera, mugikortasunaren antolamenduaren 2. aukera, espazio libreen 2. aukera, zuzkidura ekipamenduen 2. aukera eta jarduera ekonomikoen antolamenduaren 2. aukera.

Bizitokiak antolatzeko aukerei dagokienez, badirudi aurrerakinean 1. aukera hobesten dela, bizitokiak garatzeko bost azpiaukera dituen, baina ez da zehazten bostak onetsiko diren, edo batzuk soilik, detektatutako etxebizitza beharren arabera.

2.- EGINDAKO KONTSULTAK

Behin Legorretako Udalaren eskaera jasotakoan, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak ukitutako administrazioei eta publiko interesdunari egin beharreko kontsulten tramitea egin zuen, 21/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, 19. artikuluan eta 211/2012 Dekretuaren, urriaren 16koaren, 9. artikuluan aurreikusitakoa. Fase horretan, honako entitate eta erakunde hauei egin zaie kontsulta:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia.
- IHOBE.
- Uraren Euskal Agentzia (URA).
- EEE(Energiaren Euskal Erakundea).
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Administrazioaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Energiaren, Meategien eta Industriaren Zuzendaritza.
- Kantauriko Ur Konfederakundea.
- Gipuzkoako Uren Kontsultazioa.
- Goieki (Goierriko Garapen Agentzia).
- Goimen.



- EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna).
- ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna).
- Landarlan Ingurumen Elkartea.
- Eguzki talde ekologista.
- Haritzalde Naturzaleen Elkartea.
- Itsas Enara Ornitologia Elkartea.
- Ekologistak Martxan Gipuzkoa taldea.
- Aranzadi Zientzia Elkartea.

Era berean, hasierako agiria eskura egon da GFAko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren interneteko web orrian, (www.gipuzkoaingurumena.eus), herritar guztiek bidezkoztat jotako ingurumen arloko ekarpenak egiteko aukera izan zezaten.

Erantzunak bidaltzeko epea bete ondoren, hauek izan dira erantzuna bidali dutenak:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusiak adierazi duenez, 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, eta 17/2008 Legeak, abenduaren 23koak, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzkoak, xedatzen dute ezinbestekoa dela balio agrologiko handiko lurzoruetan egin beharreko proiektu edo jarduketa administratibo orok behar duela nekazaritzaren arloko foru organo eskudunak txostena egitea. Horri dagokionez, aipatu du balio agrologiko handiko lurzoruei nabarmen eragiten dien jarduketa aukera bakarra dela espazio libreen sistema orokorra zedarritzean egindakoa, zuzeneko eragina baitu balio estrategiko handiko lurzoru gisa sailkatutako 4 000 m²-tan. Halaber, HAPOan proposatutako antolamenduan aurreikusten da hainbat eremu desklasifikatzea eta lurzoru urbanizaezin izatera itzultzea, tartean balio estrategiko handiko lurzorutzat jotako batzuk. Txostenak, amaieran, ondorioztatzen du HAPOan proposatutako lurzoruaren okupazioa udalerriko balio estrategiko handiko lurzoruaren % 2,5koa denez, irizten zaiola okupazio hori eragin «bateragarria» dela eta lurzoru horien galeraren konpentsazioa, 193/2012 Dekretuari jarraituz, planean egina dago, HAPOan egindako hiri lurzoru eta urbanizagarrien desklasifikazioak estaltzen baitu.
- Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi du aurrerakin dokumentuan aintzat hartu direla Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kulturako Zuzendaritzaren txostenak, eta behar bezala zerrendatu direla entitate horiek identifikatutako kultur elementuak, nahiz eta ez duen jasotzen babes araudia; hori izapidetzearen geroko faseetan txertatu beharko da.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kulturako Zuzendaritza Nagusiak aztertu egin du HAPOaren aurrerakin dokumentuan kultur ondareari emandako tratamendua eta babesa. Adierazi du ondare elementuen katalogoa zabalagoa dela euskal kultura ondarearen katalogoa baino, eta hasierako dokumentu estrategikoak guztiek jasango luketen eragina aztertu behar duela. Horrez gain, azaldu du antolamendu dokumentuak babes proposamen bat jasotzen duela, lau mailakoa –babes bereziko higiezinak, babes ertaineko higiezinak, EAEko erregistroan inskribatzeko proposatutako higiezinak eta oinarrizko babesa duten higiezinak– eta auzitan jarri du EAEko erregistroan inskribatzeko proposatutako higiezinak eta oinarrizko babesa dutenak bereizi izana; hain zuzen, Eusko Jaurlaritzaren Kulturako Zuzendaritza Nagusiaren jarraibideen arabera ondasunak hirigintzako katalogoetan sartzeak baitakar higiezin bat oinarrizko babeseko kultura ondasuntzat jotzea, eta, beraz, horrek dakarren babes araubideak ondorioak baititu dagokion hirigintzako tresna behin betiko onesten denetik. Gainera, GFaren Kulturako Zuzendaritza Nagusiak Kultura Departamentuko Ondare Historiko-artistikoaren Zerbitzuko datu basean jasotako elementuen zerrenda bidali zuen, orientabide gisa, aintzat har zedin arkitektura eta arkeologia ondareko elementuak



aztertzean. Azkenik, adierazi zuen 6/2019 Legearen, Euskal Kultura Ondareari buruzkoaren, 50. artikuluari jarraituz, arreta berezia merezi duela eraikuntzako esku hartzeek kultura ondare babestuetan izan dezaketenez kutsadura bisualak.

- Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak natura ondarearen espazioei eta baliabideei buruzko informazio eskuragarria, hirigintzako antolamenduan aplikatu beharreko eta biodibertsitatean eragina duten jasangarritasun irizpideen zerrenda bat, eta ingurumen helburuen eta jasangarritasun printzipioen adierazleen sorta bat bidali zituen. Gero, natura ondarearen eragina aztertu zuen, eta ondorioztatu aurrerakinak lurzoru urbanizaezinari buruz eta ereduari buruz egindako proposamena koherentea dela antolamendu jasangarriko irizpideekin, nahiz eta hurrengo faseetan zehaztu egin behar den. Berezi egoki iritzi dio 3.1.1. Egia eremua desklasifikatzeari, Natura 2000 Sareko espazio bateko nekazaritza lurra okupatzea baitzekarren, bestela. Dena den, adierazi du bizitoki garapenerako bi aukerak (1.A eta 1.C) eta proposatutako bi espazio librek Oria Garaia KBEarekin muga egiten dutela. Hortaz, haren ustez, ezinbestekoa da HAPOak neurriak hartzea bermatzeko proposamen horiek ez dakartela eragin nabarmenik KBEaren kontserbazio helburuetan, eta gaineratu du HAPOa aukera bat dela zati horietan erriberako basoa berreskuratzeko eta hari balioa emateko.
- Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) adierazi du HAPOaren aurrerakinak ez duela aipatzen jasangarritasun energetikoaren azterlana, 4/2019 Legearen, otsailaren 21ekoaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoaren, 7. artikulua arabera hiri antolamenduko plan orokorretan txertatu beharrekoa, eta gogorazi du artikuluko horri jarraituz azterlan hori beharrezkoa dela. EEEK gogora dakar, gainera, 4/2019 Legeak, otsailaren 21ekoak xedatzen duen moduan, dagozkion hiri antolamenduko tresnek erabilera publikoko birkargatzeko estazioak aurreikusi beharko dituztela hiri inguruetan, ibilgailu elektrikoak eta erregai alternatiboek bultzatutakoak dituztenek erabili ditzaten, baita bizikleten erabilera eta aparkatzea errazteko espazioak ere.
- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak Eusko Jaurlaritzak onetsitako babes zibileko lurralde planetan eta plan berezietan Legorretako udalerrirako jasotako babes zibileko arriskuen berri. Honako arrisku hauek identifikatu ditu.
 - *Uholde arriskua.* 10, 100 eta 500 urteko itzulera aldiko orbanak identifikatu dira, Oria ibaiaren ibilguari eta Zubiri errekaenari lotuta, ES017-GIP-14-2/ORIA uholde arriskua izan dezakeen gunearen parte direnak; eta HAPOaren aurrerakinak uholde orbanek ukitutako eremuetarako aukerak jasotzen ditu. Horri dagokionez, adierazten du bete egin beharko dela Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan eta EAeko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Plan Sektorialean xedatutakoa, baina une oro saihestu egin behar dela azterlanen xede diren eremuetan dagoen uholde arriskua handitzea, eta instalazioak 500 urtetako itzulera aldiko kotatik gorako kotetan jarri beharko direla. Halaber, adierazi du Baliarrainen udalerriri mugakidean kokatzen dela Ibiur urtegia (Ibiur ibaia, Oriaren ibaiadarra eta Baliarrainen eta Legorretaren arteko muga), 7,53 Hm³ dituen, eta haren presa arriskutsua izan daitekeela herritarrentzat, hausten bada edo gaizki funtzionatzen badu.
 - *Arrisku sismikoa:* V-VI intentsitate gunean dago Legorreta, Arrisku Sismikoaren Larrialdi Planaren arabera. Horrenbestez, udalerrira salbuetsita dago larrialdi sismikoko plan bat egitetik.
 - *Basoko suteen arriskua.* Aintzat hartu beharko dira Basoko Suteen Arriskuagatiko Larrialdiko Babes Zibileko Plangintzarako Oinarriko Jarraibidean jasotako mugak eta baldintzatzaileak.



- *Arrisku teknologikoa*. Madril-Irun trenbidean salgai arriskutsuak garraiatzeak dakarren arriskuak ukitzen du (arrisku ertaina udalerraren mendebaldeko lehen zatian eta baxua udalerraren ekialdeko bigarren zatian), eta Gasteiz-Bilbo-Donostia-Frantziako muga abiadura handiko linea berriarenak(enbaluatzeke dagoen arriskua), baita N-1 errepidearenak ere (arrisku txikia).
- Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak ohar batzuk egin ditu lurzoru ez urbanizagarriari buruz aurrerakinak egindako erabileren kategorizazioari eta arauketari buruz. Eskatu du gehiago zehazteko «baso narriatuak» ingurumena hobetzeko kategorian basogintzako jarduketak mugatzeari dagokiona, eta aintzat hartzeko «akuiferoen zaurgarritasuna» baldintzatzaile gainjarria, Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSari jarraituz, ez baitago jasota aurrerakinaren dokumentazioan. Halaber, gogorazi du lurzoru urbanizaezinaren erabileren arauketa garatzeko hirigintzako araudiak aintzat hartu beharko dituela Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSaren 10. artikulua nekazaritzako eta abeltzaintzako lurzoru urbanizaezinaren eta balio estrategiko handiko landazabala kategoriaren araudiari buruz adierazitako loturak, baita nekazaritzako sektore eraginaren ebaluazio protokoloa aplikatu beharra, LPS horren Jarduketa Tresnen I. eranskineko D dokumentuari jarraituz. Orobat, oso positibotzat jo du aurrerakinaren 1. aukerak hobetsitako lurzoruaren okupazio eredia, eta bertan jasotako desklasifikazioak ere bai. Nolanahi ere, ohartarazi du jarduketa batzuek nekazaritzako lurzoru eta/edo erabilerei eragin diezaieketela, esaterako, balio agrologiko handiko lurzoruetan zedarritutako hiritik kanpoko parkeak (ELSO) eta mugikortasunari buruzko 1. aukeran jasotako disuasio aparkalekua, eta lurzoru urbanizaezinari eragin diezaieketen energia berriztagarria ekoizteko sistemak instalatzeko leku berri posibleek ere bai. Azkenik, lurzoru eta nekazaritzako jarduera babesteko hainbat irizpide helarazi ditu, Lurzorua Antolatzeko Jarraibideetatik, 17/2008 Legetik, abenduaren 23kotik, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzkotik, eta Nekazaritzako eta Basozaintzako LPStik etorriak, eta iradoki du hirigintzako antolamenduak aintza hartu beharko lukeela nekazaritzako espazioak eta espazio naturalak hobetzeko ekintza ekintza positiboko programak eta neurriak txertatzeko aukera, baita banakako ebaluazio sistemak txertatzekoa ere.
- GFAko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiaren iritziz, Oztopoak Iragazkortzeko Plan Gidaria Udalarri helaraztea beharrezkoa da, bertan aurreikusten baita ibaietako hainbat arrain espezieen migrazio mugimenduak zailtzen dituzten presetan eta presa txikietan esku hartzea. Plan horrek eraistea lehenesten du, bestelako esku hartzeen aurretik, irtenbiderik eraginkor eta osoena baita ibaiak iragazkortzeko. Halaber, adierazi du 9/2021 Legearen, azaroaren 25koaren, Euskadiko Natur Ondarea Kontserbatzeari buruzkoaren, 3.2.a –Printzipioak– artikulua xedatzen duela natur ondarea kontserbatzea gailendu egiten zaiola lurralde eta hirigintza antolamenduari, eta Legorretatik pasatzen den Oria ibaiaren ibai espazioa Natura 2000 Sarean sartuta dagoela. ES212005 - ORIA GARAIA KBEaren kontserbazio neurrien dokumentuak lehen eragiketa helburu gisa ezartzen du «korridore ekologiko jarraitu bat kontserbatzea eta berreskuratzea, erriberen konektagarritasuna bermatzen duena, fauna mugitu ahal izateko», eta, azken eragiketa helburu gisa, «ur korridorean oztopo guztiak kentzea». Jarraian adierazi duenez, aipatutako araudia gorabehera, aurrerakinaren dokumentuan proposatzen da zuzenean ibaiari eragiten dioten zenbait elementu babestea, esaterako, ibilguan egitura hidraulikoak dituzten errotak edo burdinolak, edo paper fabrikaren makineria pabiloia, Oria ibaiaren erriberaren zati handi bat hartzen duena. Egitura horiek udal katalogoetan sartzeak, baina, guztiz galaraziko luke ibaiaren zati horiek lehengoratzea, presak kentzea eta ertzak leheneratzea.



Horregatik, Legorretako Udalari eskatu dio ingurumenaren aldagaia kontuan har dezan ondare interesa duten elementuen katalogoan sartu beharreko egiturak aztertzean, eta, horretarako, beharrezko aholkularitza tekniko eskaini dio.

- URA Uraren Euskal Agentziak hainbat ohar egin ditu jabari publiko hidraulikoa eta hari lotutako babes guneak uholde arriskutik babesteari, drainatze jasangarriari, baliabide hidrikoen eskuragarritasunari, hornidurari eta saneamenduari dagokienez. Uholde arriskuari dagokionez, adierazi du indarrean dagoen plan hidrologikoan jasotako neurriak aintzat hartu beharko dituela, uholde arriskuko guneetako erabileren mugei dagokienez, eta aurrerakinak meandroaren kanpoko aldean uholdeen eragina txikitzeko estrategia gisa planteatzen duen jarduketa posibleak onargarria izan beharko duela ingurumenari dagokionez, eta bateragarria ES017-GIP-14-2 Legorreta uholde arrisku potentzial esanguratsuko gunean Kantauri Ekialdeko Mugarte Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Planarekin. Halaber, komenigarri irizten dio *lehentasunezko fluxuko gunea A15_Baldintzatzaile* gainjarriak planoan txertatzeari, baita *A20_Sintesi plana*o planoko uholdeen aurkako defentsen proposamenetan ere. Horrez gain, jakinarazi du uholde arriskuko gunean proposatutako garapenetako batzuk (01-B AUKERA) ibilguen polizia guneetatik kanpo daudela, eta, hortaz, Udalari dagokiola plan hidrologikoak zehaztutako mugak betetzen direla bermatzea.
- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak jakinarazi du plan orokorrak jaso egin beharko duela bere xedapenek dakarten baliabide hidrikoen eskariaren azterlan bat, eta Uren Legeak eskatutakoarekin bat datorrela. Orobat, HAPOak eta hartatik eratorritako hirigintzako garapenek saneamenduari lotuta bete beharko dituzten hainbat ohar egin ditu, saneamenduari eta haren sareei, gainazalen drainatzeari, uholdeetatik babesteari eta ibilguen eta erriberako landareen kontserbazioari dagokienez. Txostenak, amaitzeko, adierazten du ibilguen polizia gunean, zortasun gunean eta jabari publiko hidraulikoan edozein obra edo lan egiteko aroko organismoak aurretik baimen administratiboa eman beharko duela.

Irismen dokumentu hau igorri ondoren erantzunen bat jasotzen bada, hura Legorretako Udalari bidaliko zaio ahal bezain laster, kontuan hartu dadin HAPOa eta ingurumen azterketa estrategikoa egitean.

3.- INGURUMEN ARLOKO HELBURU ESTRATEGIKOAK, JASANGARRITASUN IRIZPIDEAK ETA ARAU ITURRIAK

Hiri Antolaketako Plan Orokorrak, udal lurzoruaren antolaketa osoaren oinarrizko tresna denez, aukera eman beharko du, ez soilik ingurumen alderdiak modu egokian txertatu eta hirigintzako eta azpiegituretako jarduketetatik eratorritako ingurumen inpaktuak murrizteko, baita udalerraren ingurumen kalitatea hobetzeko ere. Ingurumen azterlan estrategikoak berariaz justifikatu beharko du planak nola txertatzen dituen ingurumen helburu estrategikoetatik eratorritako ingurumen helburuak, jasangarritasun irizpideak eta arauzko iturriak.

A. HAPOaren ingurumen helburuak gutxienez honako ingurumen helburu eta irizpideetan oinarritu daitezke:

- Ingurumenarekiko kalteak prebenitzeari lehentasuna ematea, kalte horiek zuzentzeko eta konpentsatzeko neurrien gaintetik; eta horretarako, ingurumen alderdiei dagokien garrantzia ematea HAPOa egiterakoan, eta bertan ingurumena hobetzeko proiektuak eta jarduketak txertatzea.



- Lurzoruaren erabilerak esleitzerakoan, natur sistemen eta nekazaritza baliabideen kalitatea eta urrakortasuna kontuan hartzea, eremu batzuen eta besteen ingurumen kalitatea eta aurreikusitako erabilerak hartzeko duten gaitasuna bezalaxe.
- Lurzoruaren artifizializazioa eta hazkunde demografikoa elkarrengandik askatzea. Lurzoru sailkatuen okupazioa agortzea lurzoru gehiago sailkatu beharrean, eta lurzoru urbanizagarri berriak sailkatzeko erabakia behar bezala arrazoitzea, nahikotasuna eta egokitasuna adieraziz, eta benetako premiei erantzuteko behar-beharrezkoa den lurzoru bakarrik mugatuz. Lurzoru urbanizagarri berriak sailkatzeko erabakia behar bezala arrazoitzea, nahikotasuna eta egokitasuna adieraziz, eta benetako premiei erantzuteko behar-beharrezkoa den lurzoru bakarrik mugatuz. Lurzoru desklasifikatzea eta lurzoru urbanizaezin izatera itzultzea, haien hirigintzako garapena ez bada bidezkoa indarreko inguruabar sozioekonomikoei eta jasangarritasuneko irizpideei jarraituz.
- Gerta litezkeen hiri garapenak eta azpiegiturak aurkitzea, eta honako baldintza hauek ziurtatuko diren moduan antolatzea:
 - Natura elementu baliotsuen gaineko eraginak minimizatzea.
 - Ur hornidurako sarea eta saneamendu sarea, garapen horien zerbitzu egokia bermatuko den moduan erabiltzeko aukera izatea.
 - Efizientzia energetiko pasiborako baldintza egokiak ezartzea.
- Dentsitate ertain edo handia duten eta erabilerak behar bezala uztartuak dituzten hirigune trinko eta anitzak lehenetsiko dira, dentsitate txiki edo oso txikiko egoitzagarapen berriak baztertuz. Era berean, etxebizitza bakanaren edo atxikiaren tipologia ere baztertu egingo da, hiri eredu bakan eta zehaztugabea bultzatzen baitute; gainera, tipologia horrek lur asko okupatzen du eta energia nahiz material asko kontsumitzen du.
- Bigarren bizileku izango diren etxebizitzaren eskaintza minimizatzea eta, oro har, lurraren kontsumoan oinarritutako ereduak ekiditea. “Etxebizitza hutsa” okupa dadin sustatzea.
- Oraingo hiri-bilbeen optimizazio funtzionala eta birmoldaketa bultzatzea, betiere bilbe horiek birgaituz, berregituratuz edota berrituz, eta abandonatutako eremuak berreskuratzea, lurzoru nahiz baliabideak optimizatzeko estrategia gisa.
- Hiriaren zatiketa edo sakabanaketa ekiditea, erabilera edo jarduera ezberdinak behar bezala integratuta eta espazialki kohesionatuta jarrai dezaten ahalbidetuz, mugikortasun premia handirik sor ez dadin.
- Eredu energetiko jasangarriantzez jotzeko trantsiziorako beharrezko betekizunak txertatzea lurralde antolamenduan eta hirigintzan.
- Mugikortasun arrazionalagoa eta jasangarriagoa sustatzea, oinez, bizikletaz eta garraio kolektiboz gehiago mugitzera bideratzeko eta erregai alternatiboak darabiltzaten garraio motak bultzatzeko.
- Iturri berriztagarrietan oinarritutako energia hornitzeko instalazio deszentralizatuak ezartzeko aukera ahalbidetzea, energiaren kudeaketa tokikoagoa eta komunitatekoagoa izan dadila sustatuta.
- Lurzoru urbanizaezinaren antolamendu egokia ezartzea, eta bateragarri egitea nekazaritzako eta abeltzaintzako eta basogintzako erabilera produktiboen kontserbazioa eta optimizazioa, orekatuta eta ingurumeneko jasangarritasun irizpideei jarraituz, eta espazio naturalen lehengoratzeko ekologikoa eta birnaturalizatzea.



- Espazio eta elementu naturalen kalitatea eta funtzio aniztasuna kontserbatzea eta lehengoratzeko, udalerraren azpiegitura berdearen antolamendu eta kudeaketa egokien bitartez, ondare naturalaren egoera orokorra eta zerbitzu ekosistemikoak emateko gaitasuna hobetzeko.
 - Biodibertsitatearen elementu berezietan eragina saihestea (bertako landaredia, espezie mehatxatuen habitata eta abar).
 - Paisaia faktorea plangintzan txertatzea, Paisaiaren Europako Hitzarmenean ezarritakoari jarraituz babestu, kudeatu eta antolatu dadin sustatuz.
 - Baliabideen balantzean (ura, energia eta materialak) ondorio kaltegarriak murriztea, sortutako hondakinak eta kutsatzaileak bezalaxe, bai eraikuntzan (eraikinak, egiturak, urbanizatze lanak, eta abar) eta bai funtzionamendu fasean; eta zikloak ixte aldera jotzea.
 - Ur baliabideak eta ur ingurunea –lurpeko edo lur gaineko ur kontinentalak– babestu, zaindu eta leheneratzea, Uraren Esparru Zuzentarauaren helburuak lortzen saiatuta. Ildo horri jarraituz, uren arloan gaur egun indarrean dagoen araudiak ezarritako distantziak eta zortasunak errespetatuko dira, egungo eta etorkizuneko isurketak egoki tratatuko direla bermatuko da eta, era berean, jarduketak saihestu egingo dira akuiferoak kutsatzeko arriskua erakusten duten eremuetan.
- B. Legorretako HAPOa egitean, kontuan hartuko dira honako arau eta dokumentu hauetan jasotako jasangarritasun irizpideak eta printzipioak:
- 2030 Agenda eta garapen jasangarrirako helburuak (NBERen 2015eko irailaren 25eko Batzar Orokorren Ebazpena: *Gure mundua eraldatzea: garapen jasangarrirako 2030 Agenda*).
 - Batasunaren Ingurumenaren arloko Ekintza Programa Orokorra, 2030era artekoa.
 - Hiri Agenda Berria (ONU Habitat) eta Espainiako 2019 Hiri Agenda.
 - IHOBE. 2005. Hirigintza planeamenduak iraunkortasun irizpidez idazteko eskuliburua.
 - 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren, urriaren 30ekoaren, Lurraren eta Hiri Berritzearen Legearen Testu Bategina onartzen duenaren, 3. eta 20. artikuluen.
 - 2/2006 Legearen, ekainaren 30ekoaren, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 3. artikulua.
 - 10/2021 Legearen, abenduaren 9koaren, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoaren, 3. artikulua.
 - 9/2021 Legearen, azaroaren 25ekoaren, Euskadiko Natur Ondarea Kontserbatzeari buruzkoaren, 3. artikulua.
 - 1/2006 Legearen, ekainaren 23koaren, Urei buruzkoaren, 3. artikulua.
 - 4/2015 Legearen, ekainaren 25ekoaren, Lurzorua Ez Kutsatzeko eta Kutsatutakoa Garbitzekoaren, 4. artikulua.
 - 17/2008 Legearen, abenduaren 23koaren, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzkoaren, 6. artikulua.
 - 211/2012 Dekretuaren, urriaren 16koaren, Planen eta Programen Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenaren, 1. eta 2. artikulua.



- 4/2019 Legearen, otsailaren 21ekoaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoaren, 5. eta 6. artikulua.
- 90/2014 Dekretuaren, ekainaren 3koaren, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoaren, 2. artikulua.
- Azpiegitura Berdearen eta Konektagarritasun eta Lehengoratzeko Ekologikoaren Estrategia Nazionalaren 2.3.8. apartatua.

C. Honako hauek dira irismen dokumentu hau idaztean kontuan hartu diren ingurumen alorreko arau nagusiak, Legorretako HAPOa egitean kontuan hartu beharrekoak:

Europako araudia

- Europako Kontseiluak 1992ko maiatzaren 22an emandako 92/43/EEE Zuzentaraua, habitat naturalak eta fauna zein flora basatia kontserbatzekoari buruzkoa.
- 2000/60/EE Zuzentaraua, Ur Politiken Alorrean Batasun Mailako Esparrua ezartzekoa.

Estatuko araudia

- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa.
- 2015eko urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Lurraren eta Hiri Berritzearen Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa, eta naturaren zaintzari buruz garrantzizkoa den estatu mailako gainerako araudia.
- 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzkoa.
- 43/2003 Legea, azaroaren 21koa, Mendiei buruzkoa.
- 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zaratari buruzkoa, eta 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, zonakatzeko akustikoari, kalitate helburuei eta soinu igorpenei dagokienez.
- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Ur Legearen Testu Bategina onartzen duena, eta berori garatzeko erregelamenduak.
- 35/2023 Errege Dekretua, urtarrilaren 24koa, honako hauen plan hidrologikoak berrikustea onartzen duena: Kantauri Mendebaldeko, Gualdalquivirreko, Ceutako, Melillako, Segurako eta Jucarreko demarkazio hidrografikoak eta Kantauri Ekialdeko, Miño-Sileko, Dueroko, Tajoko, Guadianako eta Ebroko demarkazio hidrografikoen alderdi espainiarra.
- 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Ekonomia Zirkularrerako Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzkoa.

Autonomia erkidegoko araudia

- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa.
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.
- 2/2006 Legea, ekainaren 30koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.



- 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena.
- 10/2019 Legea, ekainaren 27koa, Establezimendu Komertzial Handien Lurralde Antolamenduari buruzkoa.
- 9/2021 Legea, azaroaren 25koa, Euskadiko Natur Ondarea Kontserbatzeari buruzkoa.
- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.
- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.
- 4/2015 Legea, Lurzorua Ez Kutsatzeko eta Kutsatutakoa Garbitzekoa.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hots Kutsadurari buruzkoa.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondareari buruzkoa.
- 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzkoa.
- 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.
- 254/2020 Dekretua, azaroaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.
- 215/2012 Dekretua, urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantiarreko hamalau ibai eta estuario Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu, eta horien kontserbazio neurriak onartzen dituena.
- 34/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, ingurune hidrikoari lotuak dauden kontserbazio bereziko eremuetarako (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako (HBBE) arau orokorrak onartzen dituena.

Gipuzkoako araudia

- 7/2006 Foru Araua, urriaren 20koa, Gipuzkoako Mendiei buruzkoa.
- 2004ko maiatzaren 12ko Foru Agindua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan *Mustela lutreola* Europar Bisoia Kudeatzeko Plana onesten duena.
- 18/2018 Foru Dekretua, maiatzaren 29koa, Klima Aldaketaren Kontra Borrokatzeko Gipuzkoako Estrategia 2050 - Gipuzkoa Klima 2050 onartzen duena

4.- INGURUMEN EBALUAZIOAREN XEDE DEN ESPARRU GEOGRAFIKOA. LEGORRETAKO UDAL MUGARTEAREN BALIABIDE ETA EREMU NABARMENAK.

Ebaluatuko den esparru geografikoak Planean aurreikusitako jarduerak eragingo dituzten ondorio guztiak ebaluatzeko behar hainbatekoa izan beharko du, hirigintzako jarduerak ez ezik araudi zehaztapenek ingurumenean dituzten eraginak ere kontuan hartuta. Oro har, Legorretako udal mugartea hartuko du, baina alderdi batzuek udal mugarteaz gaindiko lursail batek izan ditzakeen eraginen azterketa beharko dute, esaterako, paisaian eta baliabide hidrikoan sortuko den eragina aztertzean.



Ingurumen ebaluazio hori xehetasun maila handiagoz egingo da hautabide batzuek eta besteek eragin handiko jarduketak aurreikusten dituzten eremuetan; esate baterako, hirigintza garapenak egitea aurreikusi den eremuetan.

Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusian dagoen informazio bibliografiko eta kartografikoa kontsultatu eta beste administrazio batzuetatik lortutako erantzunak kontuan hartu ondoren, ingurumen interes berezia duten honako baliabide eta espazio hauek hauteman dira Legorretako udal mugartean:

A. **KBE. ES212005 - ORIA GARAIA**". HAPOaren araudia eta zehaztapenak bateragarriak izan beharko dira kontserbazio neurriekin, eta gunea babestu izendatzeko eta babesteko dekretuek ezarritako zonakatzearekin:

- 215/2012 Dekretua, urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantiarreko hamalau ibai eta estuario Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu, eta horien kontserbazio neurriak onartzen dituena.
- 34/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, ingurune hidrikoari lotuak dauden kontserbazio bereziko eremuetarako (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako (HBBE) arau orokorrak onartzen dituena.

Lurzoru urbanizaezinari buruz HAPOan ezartzen den araudiak eremu hori babesten lagundu behar du, eta berori kontserbatzeko planifikatzen diren neurriak aplikatzea erraztu behar du, eta KBEak ukitutako hirigintza eremuetako antolamenduek espazioa kontserbatzeko neurriak ahalbidetu eta erraztu behar dituzte, besteak beste, ibaiaren iragazkortasun longitudinala hobetzea eta ibaiko oztopoak kentzea.

B. **AZPIEGITURA BERDEA**. Lurralde Antolamenduko Jarraibideetan xedatutakoari aplikatuz, HAPOak tokiko azpiegitura berdearen sarea definitu beharko du, gune funtzionalarenarekin eta EAekoarekin lotua. Azpiegitura berde horretan txertatuko dira beren ingurumen balioengatik babestutako espazioak, korridore ekologikoak eta funtzio anitzeko bestelako espazioak, zeinei buruz arauketa egokia ezarriko den. Horri dagokionez, iradoki da lurralde antolamenduko jarraibideen arabera EAeko Azpiegitura Berdearen parte diren elementuez gain (Natura 2000 Sarea, korridore ekologikoak, ibai sarea), aintzat hartzea FEIGak (Funtzionaltasun Ekologikorako Interes Guneak), Gipuzkoako [Azpiegitura Berdearen Sarearen Proposamen](#)ean zedarritutakoak.

Horrez gain, hiriko azpiegitura berdeari dagokionez, lurralde antolamenduko jarraibideek adierazten dute tokiko azpiegitura berdearen partetzat joko direla espazio libreen sistema oroko gisa jotako espazioak eta, aukeran, espazio libreen eta gune berdeen tokiko sistemak; horiei aplikagarriak izango zaizkie espazio berdeen jarraitutasunaren eta balio ekologikoa babestearen printzipioak eta ekosistema zerbitzuak indartzekoak, hiri eraikian espazio libreen iragazkortzea ahalbidetzeko.

C. **BASO NATURALAK ETA ERDI NATURALAK**. HAPOak babestu egin behar ditu hoberen kontserbatutako hariztien, pagadien, haltzadien eta hostozabalen baso mistoen masak eta unadak, horiek *Babes berezia* kategorian sartuz eta, ahal den heinean, kontserbazio aktiboko neurriak aplikatuz, esate baterako, titulartasun pribatukoak diren eta balio ekologiko handia duten basoak lurzoruaren udal ondarean sartuz edo lurraldea zaintzeko akordioak eginez, kontserbazioa eta masa helduagoetarako bilakaera bermatzeko. Ondore horietarako, iradoki da diagnosi espezifikoko bat egitea, kontserbazio balio handiena duten unadak identifikatzeko –unadaren heldutasuna, egiturazko eta espezieen dibertsitatea, urritasuna eta abar bezalako alderdien arabera–.



- D. **ERKIDEGOAREN INTERESEKO HABITATAK.** Era berean, saiatuko da herriko intereseko habitatak kontserbatzen eta hobetzen, zonakatze egokiaren eta lurzorua erabileraren araudien bidez, kontuan hartuta habitat bakoitzaren presentzia eta kudeaketa eskakizunak. Edozein kasutan, aurreko apartatuan adierazi den moduan, *Babes berezia* kategorian sartu beharko dira hoberen kontserbatutako erkidegoaren intereseko baso habitatak eta kontserbazioa nekazaritza edo abeltzaintza erabileren mendean ez dagoen erkidegoaren intereseko beste habitat batzuk –8210 *Landaredi kasmofitikoko malda harritsu kaltzikolak*–.
- E. **FAUNA MEHATXATUA.** Oria ibaia, Legorretatik doala, 2004ko maiatzaren 12ko Foru Aginduak, europar bisoia (*Mustela lutreola*) kudeatzeko plana onesten duenak, babestutako ibai zatien artean dago. Agindu horrek ezartzen ditu europar bisoiaren habitatak babesteko, mantentzeko edo berreskuratzeko lurralde eta hirigintza antolamenduko tresnak, eta mugatu behar den kasuak ere justifikatzen ditu. Halaber, espezieak ugaltzeko edo babesgune moduan erabilitako habitataren ezaugarriak edonola aldatzeko ezinbestean beharko da GFaren Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurune Departamentuaren baimena, aurrez.
- Horrez gain, Oria ibaiak Legorretan uhalde enararen (*Riparia riparia*) bi kolonia ditu. Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan «zaugarri» gisa sailkatuta dago espezie hori, eta HAPOaren hasierako dokumentu estrategikoak Fauna eta Flora Mehatxatuaren Euskal Katalogoan jasotako hainbat fauna espezie aipatzen ditu. Populazio horiei eragitea saihesteko, HAPOak babes egokia aurreikusi beharko du katalogatutako espezie horien intereseko guneetarako, bertan jarduketa urbanizatzaileak edo antolaketakoak edo landa lurzorua ustiatzekoak aurreikusten badira, populazio horientzako mehatxagarriak izan daitezkeenak.
- F. **NEKAZARITZARAKO GAITASUN HANDIKO LURRAK.** Legorretako Nekazaritza eta Abeltzaintzako LPSak “balio estrategiko handiko” lurzorutzat kalifikatutako azalera handia du Oria ibaiaren ibarrean zehar. HAPOak berriaz jaso beharko du, lurzoru urbanizaezinaren kategorian, Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSak definitutako balio estrategiko handiko guneei lotutako zedarritzea eta araudia. Zedarritze hori zabaldu egin ahalko du udal antolamenduak, LPS honen helburu nagusietan oinarrituta justifikatuta. Erabileren araubidea plan horren arabera izango da. Halaber, saihestu egin beharko dira lurzoru horietako hirigintzako garapenak, eta, edozein kasutan, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko Legearen 16. artikuluari jarraituz, balio agrologiko handiko lurzoruetan aurreikusitako edozein proiektu edo jarduketa administratibok nekazaritza alorreko organo eskudunaren txostena beharko du onartu aurretik. Oso egoki iritzi zaie HAPOaren aurrerakineko aukera batzuetan egindako proposamenak, kategoriatan horretan sar daitezkeen hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarriak lurzoru urbanizaezinerara «itzultzekoak».
- G. **PAISAIAREN KALITATEA.** Paisaiaren kalitatea mantentzea eta hobetzea kontuan hartu beharko da plangintzaren eskala guztietan, hasi egiturazko antolaketatik eta HAPOaren bidez egindako erabileren esleipenetik eta garapen plangintzan eta urbanizazio proiektuetan urbanizazio baldintzak ezarri arte. Horrez gain, eskala txikiagoan, iradoki da HAPOaren hirigintza fitxetan ezarritako garapen esparruetan ezarritako hirigintza jarduketek paisaian integratzeko azterketa bat izatea, 90/2014 Dekretuaren, ekainaren 3koaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolaketan Paisaia Babesteari, Kudeatzeari eta Antolatzeari buruzkoaren, 7. artikuluan jasota dagoen moduan.
- H. **UR MASAK ETA JABARI PUBLIKO HIDRAULIKOA.** Ur masen babesa jaso behar da HAPOan, hark bere gain hartuko baitu azaleko eta lur azpiko ur masen egoera ekologiko ona lortzea eta egoera ez okertzea. Ondore horietarako, ingurumen azterketa estrategikoak balioetsi



beharko du nola eragingo dioten jabari publiko hidraulikoari HAPOak planteatzen dituen jarduketa aukerek, ez soilik zuzenean ibilguei eragiten dietenek, baita, adibidez, hondakin uren isurpenetatik sortutako zeharkako eraginek ere. Inpaktu horiek gutxitzeko neurriak ere proposatu beharko dira. Ahal den neurrian, erriberako zerrenda lehengoratzeko eta birnaturalizatzeko proposamenak egingo dira.

Jabari publiko hidraulikoari eragiten dioten jarduketek, edo haren babes guneetan kokatutakoek, URA Uraren Euskal Agentziaren baimen administratiboa beharko dute nahitaez. Erabilera publikoko zortasun guneak bere helburu naturalerako balio beharko du, hau da, ibai ekosistemaren eta jabari publiko hidraulikoaren kontserbazioa eta babesa; hortaz, oro har, bertan ez da aldaketa edo eraldaketa handirik egingo, betelanak barne.

Lurzoru urbanizaezinaren sailkapenean, ibilgu guztiak azaleko uren babesaren kategorian sartu beharko dira, eta dagozkion hirigintza fitxetan sartu beharko dira EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko LPSaren arabera errespetatu beharreko lekuak, eta, ahal den heinean, erribera leheneratzeko proposamena sartuko da.

Halaber, lur azpiko ur masak babestu beharko dira, eta erabilera kutsatzaileak saihestu beharko dira akuiferoak kutsatzeko urrakortasun ertaina edo handia duten lekuetan.

Gainera, Legorretako hirigintza antolaketak kontuan hartu behar ditu **ingurumen alorreko arazo edo alderdi hauek**:

- A. **UHOLDE ARRISKUA.** Legorretako herrigunea eta gune urbanizatu gehienak Oria ibaiaren ertzetan daudenez, oso kontuan hartu beharko dira alderdi hidraulikoak HAPOaren antolamenduan eta garapen posibletarako aukerak aztertzean. Uholde arriskuei dagokienez, jarraitu egingo zaio *Uholdeak saihesteari eta araudi hidraulikoei buruzko araudi espezifikoa*, EAEko ibai eta erreka ertzen LPSan eta 35/2023 Errege Dekretuan, urtarilaren 14koan, Plan Hidrologikoak Berrikustea onartzen duenean, xedatutakoari. Beti saihestuko da uholde arriskua handitzea, hiri eremuetan eta eremu urbanizagarrietan, eta instalazio guztiak 500 urteko itzulera aldiko uholde kotatik gora jarriko dira. Horrez gain, uholde arriskuko guneetan kokatutako garatu beharreko eremuetako hirigintza arau partikularrek aipatutako araudi aplikagarria jaso beharko dute.
- B. **KLIMA ALDAKETA.** HAPOak bere gain hartu behar ditu klima aldaketaren aurkako borrokaren irizpideak, bai gas isuriak **txikitzeari** –eraginkortasun energetikoa, energia berriztagarriak sustatzea, motordun mugikortasunaren beharrak murriztea, eta abar– bai ondorioetara **egokitzeari** dagokienez. Bi alderdi horien irizpideak zehazteko, kontuan hartu ahalko dira *Klima aldaketaren ondorioak baloratzeko eta Gipuzkoako hirigintza plangintzan sartzeko tresnaren* (<https://www.gipuzkoa.eus/es/web/ingurumena>) dokumentazioan ezarritakoak, egokitzeak jotakoak, tresnak berak egiteko aukera ematen duen HAPOaren antolaketa proposamenen azterketa egin ondoren. Oro har, egokitzeko beharrei dagokienez, IHOBek egindako *EAEko udalerriek klima aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioak* Legorretako klima aldaketaren arrisku nagusi gisa nabarmentzen ditu bero boladek giza osasunean, ibaien uholdeak hirian eta lehorte handieneko aldiak ugaritzeak jarduera ekonomikoetan izango dituzten eraginak.
- C. **ZARATA:** Baldintzatzailea gorabehera, 213/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Euskal Autonomia Erkidegoko hots kutsadurari buruzkoak, 23. artikuluan xedatutakoa betez, HAPOak hartzen duen esparruaren zonakatze akustikoa egin beharko da, aipatutako dekretuaren 20. artikuluan eta III. eranskinean zehaztutako eremu akustikoak kontuan hartuta; eta dokumentazio urbanistikoari zonakatze horren berri ematen duen plano bat



erantsiko zaio. Halaber, aipatutako dekretuaren 37. artikuluari jarraituz, etorkizuneko hirigintza garapena izatea aurreikusten den eremu akustikoak, hirigintza kalifikazio aldaketak barne, Inpaktu Akustikoaren Azterketa bat izan beharko dute, hirigintza tramitazioa eta ingurumenaren alorrekoa egiteko.

- D. **LURZORU KUTSATUAK.** EAEko lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioak eta ingurumen dokumentuan txertatutako informazioak 28 leku identifikatzen dituzte, guztira: 20 industrial eta 8 zabortegi. 4/2015 Legeak, ekainaren 25ekoak, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoak, xedatutakoaren arabera, kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat dagoen edo egon den lurzoru baten erabilera aldatzen bada, lurzoruaren kalitatearen deklarazioa egin behar da. Ildo berean, eremu horietako bakoitzaren fitxa urbanistikoetan jaso beharko da kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak daudela eta horrek dakartzan legezko betebeharrak.
- E. **ARRISKU NATURALAK.** 105/2008 Dekretuaren, ekainaren 3koaren, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoaren, 31 b) artikuluari jarraituz, ingurumen azterketa estrategikoari antolaketa esparruaren arrisku naturalen mapa bat txertatu behar zaio. Ingurumen azterketa estrategikoak neurri zuzentzaileak ezarriko ditu, dauden arriskuak txikitzeko edo handitzea saihesteko. Proposatutako antolamenduak ingurumen arrisku horiek kontuan izan beharko ditu erabilerak eta jarduerak arautzerakoan. Aipatutako uholde arriskuaz gain, HAPOak higadura prozesuek ukitutako eremuak hartu beharko ditu kontuan, eta, ondorioz, ingurumen azterketa estrategikoak eta HAPOak berak udalerrian lur horiek behar bezala identifikatu direla zainduko dute, doi-doi definitu direla eta kontuan hartu direla lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioak ezarritako antolaketaren baldintzatzaile gainjarri gisa (Nekazaritza eta Abeltzaintzako LPSaren 56. eta 72. artikuluen arabera).

5.- LURZORU URBANIZAEZINA ANTOLATZERAKOAN AINTZAT HARTU BEHARREKO INGURUMEN ALDERDIAK.

HAPOak, lurzoru urbanizaezinari dagokionez, naturako eta nekazaritzako baliabideen erabilera iraunkorra bermatuko duen antolamendua ezarri behar du; eta horrek, gainera, babes egokia eman behar die baliotsuenak edota urrakorrenak diren elementuei. Antolaketa horretan udalerriko lurzoru urbanizaezin guztirako erabilerak eta jarduerak arautuko dira, eta horretako Lurraldea Antolatzeko Gidalerroetan eta Nekazaritza eta Basogintzako Lurraldearen Arloko Planean zehaztutako antolaketa kategoriak esleituko dira.

Lurzoru urbanizaezina kategoriatan banatzeko, eremu bakoitzaren ezaugarriak, eremu horien harrera gaitasuna, eta hartzen dituzten natur baliabideen urrakortasuna eta balioa hartuko dira oinarritzat. Antolaketa horretan aintzat hartu beharko dira txosten honen aurreko 5. puntuan aipatutako alderdi desberdinak (Nekazaritza eta Basogintzako Lurraldearen Arloko Planaren arabera *Babes Berezik*o kategoria eta *“Balio Estrategiko Handiko” nekazaritza eta abeltzaintzako* kategoria. Horiek erregularizatzerakoan kontuan hartuko dira Nekazaritza eta Basogintzako LPSan jasotako Erabilerak eta Jarduerak Arautzeko Matrizean kategoria horiei buruz ezarritako erabilerak.

Ildo horretan, aurrerakinaren 02 aukera izenekoan egindako zonakatzea zehaztat eta egokitzen jo da, baldin eta harekin batera badoa antolamenduko kategoria bakoitzaren bokazioarekin eta hauskortasunarekin bat datorren erabileren eta jardueren arauketa. Ondorioz, finkatu beharko dira lurzoru urbanizaezinean onargarriak diren jarduerak eta instalazioak kokatzeko eta garatzeko baldintzak, bai HAPOaren araudian bertan bai horren inguruko ordenantza erregulatzaile bereziak prestatuz eta onartuz. Besteak beste, honako alderdi hauek erregulatuko



dituzte: hondakin uren bilketa eta tratamendu egokia, obren eta eremu narriatuen paisaia baldintzen lehengoratzea, pistak egitea, egiturak paisaian integratzea, heskaien zaintza eta landa-eremuaren zein naturaren ingurumen baldintzak hobetzeko beharrezkotzat jotzen diren beste alderdi batzuk.

Horrez gain, erabilerak eta jarduerak arautzeaz gain, HAPOa tresna bat izan daiteke lurzoru urbanizazinean egikaritu beharreko jarduketak eta udalerriko azpiegitura berdea definitzeko eta antolatzeko, behar duten espazioak lehengoratzeko eta birnaturalizatzeko; espezieak, habitatak edo espazio naturalak kontserbatzeko; eta nekazaritzako eta abeltzaintzako jasangarritasun ekonomikoa eta ingurumen jasangarritasuna hobetzeko helburua baitute. Aurrekoa osatzeko, HAPOa egitean hainbat gune edo lurzoru partzela identifikatu ahalko dira, haien natura balioagatik, eskaintzen dituzten zerbitzu ekosistemikoengatik edo udalerraren azpiegitura berdearen konektagarritasuna edo funtzio aniztasuna bermatzeko gakoak direlako lurzoruaren udal ondarrera txertatzea komeni dena, eta programa edo estrategia bat ezarri ahalko da lurzoru horiek eskuratzeko.

6.- HIRI LURZORUA ETA LURZORU URBANIZAGARRIA ANTOLATZERAKOAN AINTZAT HARTU BEHARREKO INGURUMEN ALDERDIAK.

Txosten honen 3. apartatuan aipatutako helburuekin eta irizpideekin bat, honako gomendio hauek hartuko dira kontuan hiri eremuak antolatzerakoan, hala badagokio. Honela eta sektore urbanizagarri berriak mugatzerakoan eta antolatzerakoan:

- A. HAPOan aurreikusitako hirigintza jarduerak, proportzionaltasun irizpideak kontuan hartuta egikarituko dira, eta une bakoitzean benetan dauden premietara egokituko dira, lurzoruaren gehiegizko kontsumoa saihestuz. Ildo horretan, adierazi beharra dago badirudiela aipatutako proportzionaltasun irizpideetara egokitzen direla aurrerakin dokumentuak 1. aukera izendatzen duen hiri eredua eta okupazio estrategia, nahiz eta HAPOak ezarritako bizitoki gaitasuna eta jarduera ekonomikoetarako lurzoru eskaintza justifikatu egin beharko den, eta sendo argudiatu, HAPOaren indarraldirako hautemandako eta aurreikusitako beharretan oinarrituta.
- B. Eraikuntzen jasangarritasuna eta egoitza eremuen eta jarduera ekonomikoen ingurumen kalitatea bermatuko da, eraikuntza eta hirigintza ordenantzen edo gune edo sektore horietako hirigintza fitxetako antolaketa xehatuaren bidez honetarako irizpideak eta baldintzak txertatuz:
 - Hiri guneak eta gune urbanizagarriak arrisku naturaletatik aldentzea.
 - 213/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hots Kutsadurari buruzkoak, zaratarako ezarritako kalitate akustikoko helburuak betetzea.
 - 4/2019 Legean, otsailaren 21ekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoan, xedatutako helburuak, irizpideak eta zehaztapenak betetzea, eta, bereziki, 7. artikuluan ezarritakoak. Artikulu horretan zehaztutakoari jarraituz, HAPOak jasangarritasun energetikoaren azterlan bat izan beharko du.
 - Bisualki eta estetikoki eraikuntza eta hiri azpiegitura berriak integratzea.
- C. Eremu eta sektore bakoitzeko hirigintza arau berezietan ingurumen baldintzen zerranda bat jasoko da; eta baldintza horiek derrigorrez bete beharko dira bai antolamendu xehatuan eta bai urbanizazio proiektuetan. Besteak beste, urbanizazio lanak egikaritzeko



aplikatu beharreko neurri babesgarri eta zuzentzaileak jasoko dituzte, eta bidezkoa denean, baita urbanizazio gastutzat jo behar diren neurri konpentsagarriak ere.

7.- INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN EDUKIA ETA IRISMENA

Legorretako Udalak egin behar duen ingurumen azterketa estrategikoa (IAE) HAPOaren zati bat izango da, eta bertan identifikatuko, deskribatuko eta ebaluatuko dira ingurumenean sortutako balizko eragin esanguratsuak, plana eta tekniko eta ingurumenari dagokionez bideragarriak diren arrazoizko hautabideak aplikatuz eratorritakoak. Helburua da hura aplikatzean ingurumenean sortutako eragin negatiboak saihestea edo txikitzea eta ingurumenean eta jasangarritasunean eragingo duten ekintza positiboak planteatzea.

Ingurumen azterketa estrategikoak, gutxienez, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izango du. Era berean, planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, ingurumenaren iraunkortasun txostenei buruz II. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izango du.

Eranskin horietan definitutako apartatuak garatzean, jorratu egin beharko dira txosten honetan adierazi diren alderdiak; administrazioek, erakundeek eta herritar interesdunek alegazioetan arazotsutzat jotako ingurumen arazoak; eta honako hauek:

7.1. Planaren eduki eta helburu nagusien laburpena, eta beste plan eta programa batzuekiko erlazioa

Ingurumen azterketa estrategikoan, HAPOaren edukia jasoko da laburtuta (edo haren aipamena egingo da), eta laburpen horretan adieraziko dira aurrekariak, helburuak eta aurreikusitako jarduera eta zehaztapenak; baita aintzat hartu diren gainerako hautabideak ere. Halaber, Planean mugatutako esparruen planifikazio xehatua egiteko aurreikusi diren jardueren eta garapen tresnen denbora planifikazioa ere azaldu egingo da.

Bestetik, HAPO horrek hiri antolaketako beste tresna batzuekin izan ditzakeen interakzioak, hala nola planarekin zerikusia izan lezaketen lurralde planekin eta plan sektorialekin izango dituen erlazioak aztertu beharko dira. Kontuan hartu beharko dira, gutxienez:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldea Antolatzeko Gidalerroak (LAG).
- Beasain-Zumarraga gune funtzionalaren lurralde plan partziala.
- EAeko Nekazaritza eta Abeltzaintzako Lurralde Plan Sektoriala.
- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamendurako Lurzoru Publikoa sustatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- Gipuzkoako Bidegorrien LPSa.
- EAeko ibaiak eta errekek (isurialde kantauriarra) antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- Hezeguneen LPSa.
- 35/2023 Errege Dekretua, urtarrilaren 24koa, Plan Hidrologikoen Berrikuspena onesten duena.
- 215/2012 Dekretua, urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantiarreko hamalau ibai eta estuario Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu, eta horien kontserbazio neurriak onartzen dituena.



- 34/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, ingurune hidrikoari lotuak dauden kontserbazio bereziko eremuetarako (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako (HBBE) arau orokorrak onartzen dituena.
- Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia.
- 2050 Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategia.

HAPOk helburuek eta jarduerak, esparru horretan eragiten duten planen eta programen helburu eta xedapenekin duten koherentzia eta erlazioa zehaztuko da. Horrek, xede komunak lortzea izango du helburu, eta halaber, HAPOaren barruan jarduteko dauden hautabideak aztertzea, betiere gainerako programen helburuekin eta jarduketa ildoekin ezkutatzek, ezadostasunak edo bateraezintasunak gerta litezkeen kasuetan. Era berean, ukitutako eremuan aplikatu beharreko gainerako planekin sor litezkeen bigarren mailako ondorioak, metagarriak eta sinergikoak identifikatuko dira. Era horretan identifikatutako ondorioak, halakorik izanez gero behintzat, Planaren eraginak identifikatu eta ebaluatzeko atalean aztertuko dira.

7.2. Nazioartean, Europar Batasunean , estatuan, erkidegoan, foru mailan edota udalean ingurumena babesteko ezarritako helburuak, eta plana egituratzerakoan helburu horiek aintzat nola hartu diren egiaztatzea.

IAEan azaldu egin beharko da udal antolamenduan nola txertatu diren irismen agiri honen 3. apartatuan, ingurumena babesteari eta iraunkortasunari buruz adierazitako irizpideak, edota HAPOa egiterakoan ezarritakoak, halakorik izanez gero; eta horretarako, ahal dela behintzat, finkatutako edo proposatutako adierazleak eta mugak erabiliko dira.

7.3. Legorreta udalerraren ingurumenaren eta haren bilakaeraren ezaugarriak, klima aldaketa kontuan hartuta

Aurkeztutako hasierako dokumentuko informaziotik abiatuta, eta aintzat hartuta irismen dokumentu honen 4. apartatuan ezarritako jarraibideak, ingurumen azterlan estrategikoak Legorretako udalerraren ingurumen ezaugarriak deskribatu beharko ditu, eta haren egungo egoeraren diagnosi osoa egin beharko du. Hori horrela, beharrezko azterketa espezifiko guztiak egingo dira, kontsultatu diren informazio iturriak eta bibliografia adieraziz eta lekuan bertan egindako lanaren eta erabilitako metodologiaren berri emanez.

Diagnostiko horretan deskribatu egingo da natur baliabideen, nekazaritzakoen eta paisaiaren egoera, eta hiri eremuen, industrialdeen eta landa eremuen ingurumen kalitatea; era berean, bereziki zaindu edo babestu behar diren elementu edota baliabideak identifikatuko dira.

Atal horretan, gainera, udalerriak bizi dituen ingurumen arloko presio eta arazo nagusiak aztertuko dira, arazo horiek HAPOan nola eragingo duten balioesteko, edota planak arazo horiek larriagotuko dituen aztertzeke.

Deskripzio horrek ez du ingurune fisikoaren ezaugarrietara mugatu behar; horrez gain, Planean ezarritako antolamenduaren ondorioz nabarmen alda daitezkeen hiri metabolismoko alderdiei edo aldaerei buruzko informazioa eman behar du; esate baterako, ur hornidura eta saneamenduko sistemak, edo mugikortasun sistema (garraio publiko/pribatua, motorduna/motorgabea), zarata mailak, eta abar.

Udalerraren egungo ingurumen egoera diagnostikatu ondoren, egoera horrek izan lezakeen bilakaeraren aurreikuspen bat egingo da, ingurumenean eragin dezaketen joera sozioekonomikoak –espero den klima aldaketa, esaterako– kontuan hartuta. Azken faktore horri dagokionez, klima aldaketak udalerrian eragin litzakeen inpaktuak identifikatzea



komeni da; eta, era berean, aldaketa horretara egokitzeko batez ere zein esparrutan jardun beharko litzatekeen erabakitzea.

Behin Legorretako ingurumenaren ezaugarri nagusiak deskribatu direnean, xehetasun handiagoz edo txikiagoz deskribatuko dira HAPOak jarduketa esanguratsuenak edo eragin handienekoenak kokatzea planteatu duen lekuak, adibidez, hirigintza garapenak egikaritzea aurreikusi den lekuak.

Horrez gain, 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, garatzen duen dekretuak, hau da, Premiazko Neurriei buruzko 105/2008 Dekretuak, ekainaren 3koak, 31.1 artikuluan ezarritakoa betez, lurzoru horiek HAPOan jasotako aurreikuspenak hartzeko duten gaitasunaren azterketa aurkeztuko da. Horretarako aintzat hartuko da, besteak beste: uren administrazioak jabari publiko hidraulikoa babesteari buruzko informazioa, eskari berriei erantzuteko beharrezkoak diren ur baliabideei buruzko hornidura eta saneamendu sareko entitate kudeatzailearen informazioa, eta isurketa berriak kudeatzeko gaitasunari buruzkoa, errepideen eta lehendik badauden gainerako azpiegituren gaian eskumena duten administrazioek egindako txostena, planean jasotako aurreikuspenak izan ditzaketen eraginei buruzkoa eta abar.

Atal horretan, agiriari azkenean erantsiko zaizkion gai guztiei buruzko kartografia –eskala egokian egina– hartuko da oinarritzat.

7.4. Hautabideak aukeratzeko prozesuaren laburpen arrazoitua. Erabakitako hautabidea aukeratzeko arrazoiak.

Ingurumen azterketa estrategikoak, gainera, HAPOaren helburuei erantzuteko teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak izan daitezkeen hautabide guztien ingurumen arloko azterketa bat jaso behar du. Horretan, aztertutako hautabide bakoitzak ingurumenean izan lezakeen eragina ebaluatuko da, eta planaren helburuei zenbateraino erantzungo zaien zehaztu, ingurumen arloko helburuei bereziki.

Hori horrela, azterketaren esparruan dauden ingurumen arloko elementu eta arazo nabarmenak identifikaturik, eta ingurumena babesteko helburuak ezarri ondoren, HAPOa garatu ahal izateko eta bertan ezarritako helburuak betetzeko teknikoki, ekonomikoki, eta ingurumenaren aldetik bideragarriak diren hautabideak proposatu beharko dira. Eta horien artean, “0 hautabidea” sartu beharko da derrigorrez; hau da, udalerrriaren egiturazko antolamendua ez aldatzekoa. Ahal denean, hirigintzako jarduerak marrazteko edo diseinatzeako hautabideak konparatu egingo dira, hautabidea horiek ezartzeko erabil daitezkeen kokalekuak bezalaxe.

Aurrerapen agiri honetan jasotako planteamenduak aintzat hartuta, hautabideen azterketa horretan jaso egin beharko dira honako analisi xehatu hauek:

- **Bizitegirako garapen berriak kokatzeko hautabideak.** Lehenik eta behin zehaztu behar da HAPOaren indarraldirako (8 urte) udalerrian beharko diren etxebizitzien kopurua, eta kuantifikazio hori gizarte, demografia eta ingurumen alorreko parametroetan oinarrituta egingo da, betiere lurralde antolamenduko jarraibideek kuantifikazio horri buruz ezartzen dituzten mugen barruan. Bizitoki gaitasuna zehaztu ondoren, azkenean sakonago aztertzea erabaki den bizitokiak kokatzeko eta banatzeko aukerak aztertuko dira, eta kontuan hartutako bizitokiak antolatzeako aukeren bideragarritasuna eta horiek egikaritzearen komenigarritasuna balioetsiko dira.

Azterketa horretan aintzat hartu beharko da kontuan hartutako etxebizitzien kokapen eta tipologia aukerak, ingurumen elementu baliotsuetan, esaterako, gune babestuetan,



eragin handiak dakartzatenak edo uholde arriskuagatik pertsonengan edo gauzetan kalte arriskua handitzen dutenak baztertzeko.

- **Jarduera ekonomikoetarako, espazio libreetarako eta ekipamenduetarako lurzoru aukerak.** Analisiak zehaztu egin beharko ditu udalerrriak jarduera ekonomikoetarako, espazio libreetarako eta ekipamenduetarako dauden egiazko lurzoru beharrak. Behar horiek zehaztu ondoren, jarduera ekonomikoetarako, espazio libreetarako eta ekipamenduetarako kokapen eta banaketa aukerak aztertu beharko dira, azkenean sakonago analizatzea erabaki den horiek. Analisi hori beti egingo da jasangarritasun irizpideen arabera, eta baztertu egingo dira ingurumen balio handiko elementuetan, esaterako, balio estrategiko handiko nekazaritzako lurretan edo espazio babestuetan eragin nabarmenak dituztenak eta/edo pertsonengan edo gauzetan uholde arriskua handitzen dutenak.

Aukerak aztertzeko lehentasuna izango da dagoeneko urbanizatutako eremuak finkatzea eta berritzea hautemandako beharrak asetzeko, ingurumen eta jasangarritasun irizpideetarako egokiagoa delako, egun lurzoru urbanizaezinean jasotako guneak garatu beharrean, bereziki balio estrategiko handiko nekazaritza lurzoruetan kokatutakoak edo gune babestuetan edo haietatik hurbil daudenak.

Orobat, aukerak aztertzean aintzat hartuko dira erabilerek proposatutako hirigintza guneetan duten barneko banaketa, hauek betetzeko:

- Kontuan hartzea ingurumen arriskuak, esaterako, uholde arriskua.
- Batasunaren intereseko habitatei sortutako eragina txikitzea, esaterako, erriberako landarediari, eta jabari publiko hidraulikoa eta haren babes guneak berreskuratzea erraztea.

Nolanahi ere, hautabideen azterketan adierazi beharko da zein metodologia erabili den, eta zein neurritan kontuan hartu diren ingurumen alderdiak, alderdi tekniko eta funtzionalak, eta alderdi ekonomikoak garatu behar den irizpide anitzeko azterketan. Azkenean aukeratutako hautabidea ez badator bat ingurumen balioespen onena daukan hautabidearekin, hori aukeratzeko arrazoiak behar bezala azaldu beharko dira.

Txosten horri, proposatutako hautabide guztien kokalekua eta ezaugarriak adierazten dituen dokumentazio kartografikoa erantsiko zaio.

7.5. HAPOk zehaztapen eta jarduketa ezberdinek ingurumenean dituzten eragin adierazgarrien identifikazioa eta balioespena.

Identifikatuko da eta balioetsiko da nola eragingo duten HAPOk aurreikusitako jarduerak ingurumeneko elementu desberdinetan, besteak beste honako hauetan:

- Espazio naturalak eta azpiegitura berdea.
- Habitatak eta espezie urriak edota interesgarriak, esaterako, bisoi europarra.
- Balio estrategiko handiko nekazaritza lurrak eta nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak.
- Ur araudiaren arabera babestutako ur masak eta eremuak.
- Paisaia
- Hiri ingurunearen kalitatea, zaratari edo trafikoari dagokienez.
- Giza osasuna.



- Ondare monumentalak eta arkeologikoak.

Halaber, aztertu beharko da zein neurritan eragiten dien HAPOan aurreikusitakoak alderdi hauei:

- Mugikortasun motorduna eta motorgabea sortzea.
- Ur kontsumoa. Zentzu horretan, garapen berriek ekarriko duten ur eskaria zenbatetsi beharko da, eta Gipuzkoako Uren Kontsartzioaren txostena lortu beharko da, behar berriak asetzeko hornidura azpiegiturak nahikoak direla justifikatzeko.
- Energia kontsumoa. 4/2019 Legearen, otsailaren 21ekoaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoaren, 7. artikuluari jarraituz, lege horretan ezarritako moduan jasangarritasun energetikoaren azterketa bat egin beharko da.
- Kutsatzaileak isurtzea eta hondakinak sortzea. Ildo horretan, eta URAk emandako txostena ikusita, Gipuzkoako Uren Kontsartzioak justifikatu egin beharko du egungo saneamendu azpiegitura nahikoa dela azkenik Legorretako hirigunerako onetsitako garapenei zerbitzu emateko.

Aztertutako inpaktuek zeharkako efektuak, metatze efektuak, efektu sinergikoak, epe laburreko, ertaineko eta luzeko efektuak, behin betiko eta aldi baterako efektuak, eta efektu positiboak eta negatiboak jaso beharko dituzte.

Identifikazioak eta balorazioa ez da mugatuko antolatutako esparrua fisikoki eraldatzean sortutako zuzeneko inpaktuetara (esaterako, lurra urbanizatzeari artifizializatzeari). Kontuan hartu beharko ditu proposatutako antolatutako ingurumeneko sortutako zeharkako inpaktuak edo erabilereko eta jardueren erregulazioak sortutakoak (adibidez, hondakin urak areagotzea etxebizitzaren edo jardueren ekonomikoaren kopurua handitu delako, etxebizitzak zarata gehiago jasatea jardueren industrialak ezarri direlako eta abar).

Detektatutako inpaktuen garrantzia zehazteko, kontuan hartuko da 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak, III. eranskinean, eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Planen eta Programen Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazio Estrategikoa egiteko Prozedura arautzen duenak, III. eranskinean xedatutakoa.

2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak, VI. eranskineko 8. apartatuan zehaztutako terminologia erabiliz, identifikatutako erasan bakoitzaren magnitudea eta intentsitatearen ezaugarriak zehaztu eta balioetsiko dira. Horretarako, eragina behar bezala deskribatzeko eragin adierazleak (adierazgarriak, esanguratsuak, baztertzailak, zenbakarriak eta identifikatzen errazak) eta eraginari dagokionez gutxienez muga onargarriak finkatzeko ingurumen arloko kalitatezko helburu zenbait zehaztuko dira, indarreko legeria erreferentzia modura hartuz, eta baita eskumeneko organoen jarraibideak ere, kasu bakoitzean.

Era berean, balorazio horretan erabakiko da, hala egokituz gero, HAPOaren barruan zeintzuk diren indarreko lurralde, hirigintza eta ingurumen arloko plangintzarekin bateraezinak diren jarduketak, edota ingurumeneko ondorio kritikoak eta onartezinak sortuko dituztenak. Kasu batean zein bestean, jarduketa horiek aldatu edota baztertu egin beharko dira.

Azkenik, egokiago jotzeagatik inpaktuen ebaluazioa prozesuaren ondorengo beste fase batzuetara atzeratzen diren alderdiak arrazoitu egingo dira.



7.6. Ingurumen integratzearen neurriak

Ingurumen txosten estrategikoak neurriak zehaztuko ditu HAPOak ezarritako jarduketek ingurumenean dituen eragin nabarmen bakoitza prebenitzeko, murrizteko eta, ahal den neurrian, arintzeko.

Halaber, HAPOan ingurumen alderdiak sartzeak ez luke mugatu behar gerta litekeen inpaktu bati erantzuteko neurriak ezartzera; izan ere, neurri horiek osatuz, ezarri beharko lirarteke udalerriko ingurumen arazoak konpontzen lagunduko duten eta ingurumen kalitate hobea lortzen lagunduko duten neurriak.

Horrela, Legorretako HAPOaren ingurumen integratzea honako neurri mota hauek hartuz egin beharra dago:

- Ingurumen alderdiak aintzat hartzea eta lurralde antolamenduan eta hiri diseinuan txertatzea, aurretik zeuden arazoak edo eraginak prebenitzeko edo zuzentzeko. Ez du berariazko aurrekonturik behar izaten. Besteak beste, honako hauek: lurzoru urbanizaezinaren antolamendua definitzea, balio naturalen babes egokia bermatuko duena, eraginak izan ditzaketen jarduerak arautzeko ordenantzak txertatuko duena, garapenak sentikortasun txikiko eremuetan kokatuko dituenak, eraikinen jokabide energetikoa hobetuko duena, eguzki argiaren erabilera hobetuko duena eta abar.
- HAPOaren zehaztapenek garatutako planen eta proiektuen ingurumen eragin negatiboak prebenitzeko eta zuzentzeko neurriak, klima aldaketan duten eragina arintzekoak eta hartara egokitzeak barne. Neurri horiek egikaritze proiektuen zati bezala hartuko dira, eta ondorioz, proiektuen aurrekontuetan jaso beharko dira. Horietako asko zehaztu egin beharko dira planarekin edo garapen proiektuarekin batera. , Baina, edozein kasutan ere, HAPOak neurri horiek identifikatu egin beharko ditu, horien gutxienezko karakterizazio bat egin, eta garapen planetan eta proiektuetan nahitaez jaso beharrekoak diren zehaztu.
- Egiaz gertatzen diren kapital naturalaren edo nekazaritzakoaren galerak konpentsatzeko neurriak, behin saihetsezintzat jo direnean. Honako hauek zehaztuta gelditu behar dute antolamendu tresnan:
 -
 - Konpentsazio ekintzak jasoko dituzten lursailak eskuratzea lotuta egongo dela sailkatzen den lurzoruarekin, adibidez, sistema orokor atxiki baten edo zuzkidura publikoak lortzeko jarduketaren bidez.
 - Konpentsazio neurrien kostua sektore berriaren urbanizazio gastu bat izango dela.
 - Konpentsazio neurriak egikaritzea egon behar dutela eraikuntza lizentziak eman aurretik.
- Udalerriko ingurumena hobetzeko jarduketak, degradatutako espazioen leheneratze ekologikoa eta/edo paisaiarena edo espazio natural edo erdinaturalen –azpiegitura berdea– funtzionaltasun ekologikoa hobetzea xede dutenak. Hori horrela, leheneratu beharreko kokalekuak edota ingurumen baldintzak hobetzeko jarduerak identifikatu eta lehentasun-hurrenkera zehaztu egin beharko lirarteke HAPOan, jarduera horiek gauzatzeko programa bat ezarrita.

Bestalde, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, Ingurumen Ebaluazioarenak, agintzen duen moduan, ingurumen azterketa estrategikoan jaso beharko dira klima aldaketaren gaineko



eragina arintzeko eta aldaketa horretara egokitzeko beharrezkoak diren neurriak. Horretarako, erreferentzia modura erabil daitezke IHOBek prestatutako gida metodologikoak.

Ingurumen integrazioko neurriek jasota egon beharko dute HAPOaren hirigintzako dokumentazioan, eta haien kostu ekonomikoa zenbatetsi beharko da, baita finantzaketa moduak –udal aurrekontuen kontura, dirulaguntzen bidez, beste organismoekiko hitzarmenekin, urbanizazio gastuen kontura eta abar– eta egikaritzeko denbora plangintza ere. Azkenean, HAPOa garatzeko plan eta proiektuetan derrigorrez aintzat hartu beharreko neurriak zehaztu egingo dira.

7.7. Ingurumena zaintzeko programa, planaren eraginei dagokienez.

Ingurumen azterketa estrategikoan jaso beharko da HAPOak ingurumenean izan ditzakeen eraginak zaintzeko programa bat, identifikatutako inpaktu garrantzitsu bakoitzaren jarraipena egin ahal izateko, neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak betetzeko eta horiek eraginkorrak izateko, baita HAPOan zehaztutako ingurumen helburuak lortzeko ere.

Horretarako, programak ondorengoei buruzko informazioa jaso beharko du aldian-aldian:

- Proposatutako ingurumen helburuen betetze maila.
- Plana martxan jartzetik etorritako ingurumen ondorio kaltegarrien garrantzia.
- Neurri prebentibo, zuzentzaile, eta dagokionean, konpentsatzaileen ezarpena eta horien eraginkortasuna, eta neurri horiek planaren eta egikaritze proiektuen segidako garapen dokumentuetan sartzea.
- Aurreikusi ez diren baina inguruneke elementuetan azaldu diren ingurumen ondorio kaltegarrien identifikazioa.
- Kasuan kasuko sektorean (ura, hondakinak, zarata, kutsatuak egon daitezkeen lurzoruak, errepideak, jarduera sailkatuak, eta beste) eskumena duten erakunde edota administrazioek bidezko baimenetan ezarritako ingurumen baldintzak betetzea, baita udal mailako baimenetan ezarritakoak ere.

Xede horri begira, ikuskapen programak honako datuak jaso beharko ditu:

- Begiratu egin beharko diren ingurumen sistemak, alderdiak edo aldaerak identifikatzea.
- Egin beharreko jarraipen eta kontrol jarduerak, bakoitzaren metodologia (datuak hartzeko estrategiak, aldizkakotasuna eta abar) eta kronograma adierazita.
- Jarraipen horretan erabiliko diren adierazleak, bakoitzaren unitateak eta gehieneko edo erreferentziako mailak adierazita. Adierazle modura erabili ahal izango dira agiri honetako 8. atalean iradokitakoak, edo egokitzen jo daitezkeen beste batzuk.
- Ingurumen jarraipena egiteaz arduratuko diren pertsonak edota erakundeak.
- Egin beharreko txostenen edukia eta aldizkakotasuna.
- Aurreikusi den aurrekontua.

7.8. Laburpen ez teknikoa

Ingurumen azterketa estrategikoan helarazitako informazioaren laburpen ez tekniko bat idatzi beharko da, informazio zehatza eta publiko orokorrak ulertzeko modukoa emanaz.



Laburpen horretan, honakoak jasoko dira gutxienez HAPOa egitearekin lortu nahi diren helburu orokorrak; aztertu diren hautabideak; horietako bakoitzak ingurumenean eragingo dituen ondorioen laburpena; eta azkenean erabakitako irtenbidea edo irtenbideak aukeratzeko arrazoiak.

Laburpen horren osagarri gisa, diseinatutako neurri zuzentzaileak deskribatuko dira, eta herritarren zein administrazioen parte-hartze prozesuko ondorioak adierazi.

Era berean, alderdi aipagarrienen dokumentazio grafikoa erantsiko zaio.

7.9 Hautabideen eta neurri prebentibo, zuzentzaile eta konpentsatzaileen bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena

Hautabideen azterketari erantsiko zaio gutxi gorabeherako azterlan ekonomiko bat, kostu onura eta ekonomia-finantza azterketak aintzat hartuta, eta, ahal den neurrian, ingurumen eta gizarte alorreko kanpoko gastuen azterketa ere sartuta.

Halaber, apartatu horretan sartuko da HAPOa aplikatzeak izan ditzakeen eragin negatiboak prebenitzera, murriztera edo konpontzera bideratutako neurrien kostuaren zenbatespen eta/edo aurrekontu xehatu bat, bermatzeko bertatik eratorritako ingurumen kostuak internalizatzen direla. Neurri horiek finantzatzeko moduak ere sartu beharko dira, Legorretako Udalaren kargura egin beharrekoak eta, hala badagokio, hirigintza proiektu edo jarduketan sustatzaileek hartu beharrekoak bereiziz.

7.10. Jasangarritasun energetikoaren inguruko azterketa.

4/2019 Legearen, otsailaren 21ekoaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoaren, 7. artikuluari jarraituz, HAPOak jasangarritasun energetikoaren azterketa bat izan behar du, 7.3. artikuluan zehaztutako edukiak garatzen dituen:

- Jasangarritasun energetikoaren eskakizunetara egokitzearen ebaluazioa.
- Energia berriztagarriak eraikinetan eta azpiegiturretan ezartzearen ebaluazioa.
- Mugikortasun azterketa, energia kontsumoarekin lotuta, garraio pribatuaren erabilera ez beste aukerak eta motorrik gabeko mugikortasuna eta mugikortasun eza sustatzeko politikak barne.
- Kanpoko argiteria publikoaren azterketa, gune publiko bakoitzarentzako argi maila eta denbora egokienak ebaluatzeko.

8.- INGURUMEN EBALUAZIOAN ETA IKUSKAPEN PROGRAMAN AINTZAT HARTU BEHARREKO ADIERAZLE KUANTITATIBO EDOTA KUALITATIBOEN PROPOSAMENA

Hautabideen ingurumen ebaluazioa egiteko eta ikuskapen programarako hautatutako adierazleak adierazle konbinaketa bat izango dira, eta aukera emango dute egiaztatzeko betetzen direla, alde batetik, HAPOak bere gain hartzen dituen ingurumen helburuak, eta, bestetik, plana garatzen den bitartean aurreikusitako ingurumen erasanek. Era horretan, ingurumen helburuak betetzen ez badira edo horietan aldaketak sortzen badira, neurri zuzentzaile osagarriak txertatu ahal izango dira.

Ingurumen adierazleak:



- Zehaztutako ingurumen helburuekin eta irizpideekin lotuak egon behar dute, HAPOa egiten eta ezartzen esku hartzen duten eragileei erantzukizunak finkatzen lagunduko dien benetako kudeaketa tresna moduan funtziona dezaten.
- Neurgarriak izan behar dira, eta denbora serie jakinetan aztertze modukoak. Denboran zeharreko aldagarritasuna adierazteko modukoak izan behar dira, haiek aztertzea zilegi izan dadin, joera negatiboak prebenitu edo zuzentzeko.
- Gutxi izan behar dira kopuruan, eragindako eragile guztiek erraz ulertzeko xedez. Horretarako, sinpleak eta interpretatzen errazak izan behar dira.
- Eskuragarri egon behar dute, adierazle horiek lortzeko informazio iturri askotara jo beharrik gabe.

Elduaingo udalerrriaren ezaugarriak kontuan hartuta, eta kontuan hartuta hasierako dokumentuan jasotako planteamenduan, adierazle erabilgarri batzuk erabili daitezke lurzoruaren kontsumoa (artifizializatutako azalera), lurzoruari eta nekazaritzako ustiatzei (nekazaritzako ustiatzeien kopurua, balio estrategiko handiko azalera) sortutako eragina, uholde arriskua duten etxebizitza edo eraikuntza kopurua, baso mota ezberdinen eta intereseko beste habitat batzuen azalera eta abar balioesteko.

9.- INFORMAZIO ETA KONTSULTARAKO MODALITATEAK

21/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, 21. eta 22. artikuluetan eta 211/2012 Dekretuaren, urriaren 16koaren, 12. artikuluan informazio eta kontsulta modalitateen inguruan xedatutakoari jarraituz, Legorretako Udalak honako jarduketara hauek egingo ditu HAPOaren prozedura substantiboan aurreikusitako tramiteen barruan:

- a) Ukitutako herri administrazioei eta herritar interesdunei kontsulta egingo die, planaren edo programaren alde aurreko bertsioari eta ingurumen azterketa estrategikoari buruz.
- b) Plan edo programaren hasierako bertsioaren eta ingurumen azterketa estrategikoaren informazio publikoa, aldizkari ofizialean iragarki bat jarritz. 45 egun izango dira, gutxienez, aztertze eta oharrak helarazteko.

Hori guztia egiteko orduan, ukitutako administrazio publikotzat eta publiko interesatutzat joko dira Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak irismen agiri hau egiteko kontsultatutako administrazio, entitate eta pertsonak —agiri honetako 2. apartatuan zehaztutakoak—, baita plan izapidetzeko prozesuan zehar Udalak identifikatu ditzakeen bestelako erakunde eta interesatuak ere (ukitutako partzelen jabeak, herritar elkarteak eta abar).

10.- INGURUMEN ADIERAZPEN ESTRATEGIKOAREN ESKAERA ETA JENDAURREKO EPEALDIAREN OSTEAN PLANEAN IZAN DAITEZKEEN ALDAKETAK

21/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoaren, 24. eta 25. artikuluetan eta 211/2012 Dekretuaren, urriaren 16koaren, Planen eta Programen Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa egiteko Prozedura arautzen duenaren, 13. artikuluan xedatutakoari jarraituz, plana edo programa behin betiko onartu aurretik Legorretako Udalak Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari eskatuko dio ingurumen adierazpen estrategikoa igortzeko (ingurumen oroitidazkia, 211/2012 Dekretuaren terminologiaren arabera). Eskaera horretan ingurumen azterketa estrategikoaren espediente osoa sartu beharko du, hauek osatutakoa:

- HAPOaren hirigintza dokumentuak.
- Ingurumen azterlan estrategikoak.



- Dagokion araudi sektorialaren arabera nahitaezkoak diren txostenen kopiak eta kontsulta eta informazio publikoko tramiteetan egindako alegazioak.
- Laburpen dokumentu bat. bertan, Legorretako Udalak deskribatu beharko du nola integratu diren Planaren azken proposamenean ingurumeneko alderdiak, ingurumen azterketa estrategikokoak, eta nola egokitu den irismen dokumentura, zeintzuk izan diren egindako kontsulten emaitzak eta nola hartu diren kontuan.

Halaber, kontuan hartu beharko da plana tramitatzean eta gero kontsulta eta informazio publikoko tramitearen ondoren aldaketak proposatzen badira, ingurumenean ebaluatu gabeko eragin nabarmenak izan ditzaketenak eta, edozein kasutan, 211/2012 Dekretuaren, 4. artikuluan jasotako kasuren bat bada, Udalak zuzendaritza honi jakinarazi beharko dio, eta plan edo programan aldatutako alderdiak ebaluatzeko beharrezko dokumentazioa bidali beharko du.

INGURUMENeko ZUZENDARI NAGUSIA

Sin.: MÓNICA PEDREIRA LANCHAS

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

documento-alcance_pgou_legorreta_eu